

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OTOGOIENGO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Luberrien aprobetxamenduaren lizitazioa

Arabako Otogoiengo Kontzejuak, 2019ko maiatzaren 21eko auzokoen batzarrak egindako bilkuran, Otogoiengo Kontzejuaren mendietako 265, 266, 267, 269, 270, 271, 272, 273 luberrien aprobetxamenduaren lehiaketa bidezko esleipena arautuko duten baldintza ekonomiko-administratiboen eta berariazko betekizunen agiria onetsi zuen.

1. Erakunde esleitzaila: Arabako Otogoiengo Kontzejua.

2. Kontratuaren xedea: 265, 266, 267, 268, 269, 279, 271, 272, 273 zenbakiko luberrien aprobetxamendua, onura publikoko 559 mendia; azalera, guztira: 11,12 hektarea; jabea: Otogoiengo Kontzejua.

3. Iraupena: bost basogintza urte, zeinak 2024ko irailaren 30ean bukatuko baitira.

4. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era:

a) Izapidetzea: ohikoa.

b) Prozedura: irekia.

c) Esleitzeko modua: lehiaketa.

5. Aprobetxamenduaren kanona: urteko kanona 120 euro hektareako.

6. Bermeak:

a) Behin betiko bermea: kontratuaren denboraldi osoko kanonaren guztirako salneurriaren ehuneko bost.

7. Agiriak eta argibideak eskuratzea:

a) Baldintza ekonomiko eta administratiboen eta betekizun espezifikoaren agiria Otogoiengo gizarte etxean (Kale Bakarra, 50B) egongo da eskueran, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera 6 egunez. Hitzordua eskatu beharko da alde zurretik. Telefonoak: 686142846, 656768848, 687609827.

b) Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: Agiria, dokumentazioa eta informazio osagarria orriaren 5. klausulan adierazitakoari jarraituz eskatu eta eskuratuko da.

8. Kontratataren berariazko betekizunak: Baldintzen agirian zehaztutakoak.

9. Eskaintzak balioesteko irizpideak:

a) Jarduera nagusia ustiategiarena izatea.

b) Abeltzain gazte izatea.

c) Herrikoa edo hurbilekoa izatea.

d) Nekazaritza ekologikoa

e) Emakume nekazaria

Ikus klausula baldintza agiria, puntuazioa zehazteko.

10. Eskaintzak aurkeztea.

a) Azken eguna: hamabost eguneko epea, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, aldeztu aipaturako telefonoetara deituta 18:00ak eta 20:00ak bitartean. Epearen azken eguna larunbata edo egun baliogabea bada, hurrengo egun baliogabea arte luzatuko da.

b) Aurkeztu beharreko agiriak: agirian jasotzen dira.

c) Aurkezteko lekua: gizarte etxean horretarako gaitutako gelan

d) Lizitatuak eskaintzari eutsi behar dion epea: Ikus agiria.

e) Aldaerak onartzea: ez.

11. Eskaintzak irekitzea:

a) Eguna: B gutun azala, lehiaketaren esleipen irizpideei buruzkoa, eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondorengo laugarren egun baliogabea 12:30ean irekituko da, jendaurreko ekitaldian.

b) Lekua: gizarte etxea (Kale Bakarra, 50B, Otogoi, Araba)

12. Bestelako argibideak: ikus agiria.

13. Iragarki gastuak: esleipendunak ordainduko ditu.

Otogoi, 2019ko uztailaren 29a

Lehendakaria
EMMA MURO